



Alfabetatzea gaur egun

Joxe Manuel Odriozola

Durangoko 26. Euskal Liburu eta Diskoen Azokan euskal alfabetatzeari buruzko mahai-inguru bat egin zen: «Alfabetatzea gaur egun». Han jorratu ziren auzigaien ingurumariak agertzen hasi baino lehen, goazen mahaikideen berri ematera. Hona banan-banan: Koldo Gonzalez Txabarri (Udal Euskaltegiak), Josu Goikoetxea (HABE), Andoni Unzalu (Aurten bai), Adolfo Arejita (Labayru), Agurtzane Ortiz de Landaluze (Elkarlan Koordinakundea), Erramun Osa (AEK) eta ni neu moderatzaile gisa. Besterik gabe, hizlariak lanean jartzeko erabili nuen txostenetik, hiru gai-ardatzen inguruko galde-puntuak aterako ditugu, horien ondorengo garapena goiko ordenari jarraituz egin zela esanaz.

Euskarazko alfabetakuntzaren mugak eta nondik-norakoak

- a. Alfabetagaia jadanik ez da analfabetoa kultura dominantean.
- b. Kultura dominantean alfabetatua dagoenak zer-nolako motibazio-eragingarriak izan ditzake kultura menderatuan alfabetatzeko?
- c. Euskal alfabetakuntzaren helburu nagusia «euskaldun osoa» sortzea omen da. Alfabetagai hauek, ordea, eremu erdaldunetan bizi dira gehienbat eta, beraz, erdal kulturaz itorik. Herri euskaldunetan bizi direnak, aldiz, kultur dinamikarik gabeko gizarte-harremanen mugetan egon ohi dira herriska hauek erdigunearekiko zokoraturik daudenez.

Koldo Koldoren lehen saioa alfabetatze-kontzeptuaren azalpenarekin hasi zen. Hiru mailatan definitu zuen kontzeptua, bakoitzaren ezaugarriak sailkatuz. Unesco-ren harako hura agertu zigun lehenik: «irakur-idatzizko kodeak gizartean erabiltzeko gai ez zena» analfabetotzat jotzen zela. «Analfabeto funtzionala» deiturapean gordetzen den hiztunaren irudia bigarrenik. Hiztun hau «nolabait gizarte honetan zenbait funtzio aurrera ateratzeko gai ez dena» omen litzateke. Hirugarren kategoriari honela deitzen zion: «itzulera-zko analfabetoa». Alegia: «bere eskolatzeko-prozesuan hankamotz geratu den pertsona». Horiek horrela, ondorengo hitzei bagagozkie, oharpen hauek egin zituen: euskal alfabetatzearen erdua ez dela horietako inon kokatzen; bestelakoa dela mamiz eta azalez gure

prozesua; eta konnotazio negatiboak dituela gureak. Izan ere, gurean, inori alfabetatu behar duela eskatzea analfabetoa dela adieraztea baita. Eta, jakina, euskaldun hori ez da analfabetoa kontzeptu honen ohizko esanahien arabera.

Josu Josu, aldiz, 1986ko erroldatik ateratako datu eta zehaztapenekin hasi zitzaigun lehen galdera honi erantzuten. Hortik atera omen daitekeenez, 15-50 urteko adin-taldearen barne, 70.000 inguruko euskal hiztunlegoak bere burua nolazpait ere analfabetotzat dauka. Eta gertakari horren aurrean honako galdera hau egiten zion Josuk bere buruari: «Zergatik ez da alfabetatzen jende-kopuru hori?». Galderaren ondoren etorri zen erantzuna ere: motibaziorik eza, neurri batean bere hizkuntz komunikazioaren beharrak erdaraz aserik egotetik dator. Euskaldungoaren jokamoldea ere balore-kategoria batzuren mendean hezurramitzen da eta horiek, gaur-gaurkoz, prestigioaren eta modaren arabera moldaturik daude. Eta, gure zoritxarrerako, balore horiek erdarari atxikirik daude, ez euskarari. Ez dirudi, beraz, hizkuntz prestigioaren ordenamendu honek dagoen-dagoenean diraeino, euskal alfabetatze erakargaririk antola daitekeenik.

Andoni Andoniren jarduna bere saio osoan zehar behin eta berriro azpimarratu zuen ideia batekin abiatu zen: euskal alfabetatzearen atipikotasuna, hain zuzen. Halaz ere, euskal alfabetakuntzaren antolamendua aldi eta alde oro erabili izan diren bidetatik mamitzen da, eta hori ez bide da biderik zuzenena. Metodologia klasikoan oinarritu dugu geure lana, baldintzak bestelakoak izanik. Guzti honen aurrean, premiak begiz jota, irtenbidearen ataka honela formulatu zigun Andonik: ezer egitekotan, «kode estruktural oso bat, eraginkorra» beharko genuke. Euskal alfabetatzea erakar-indarrez hornituko bada, oinarritzko baldintza kulturalak aldatu beharko dira. Kultur dinamika erakargarri hori uztartzen goazen neurrian, euskarazko letren mundua ere halaxe bihurtuko da. Bien bitartean, tresnatzat ditugun erakunde, antolamendu eta ikasbideak, eraberritzen joan beharko genuke harik eta bat etorri arte eskaintza eta eskaria.

Adolfo Izena izanari egokitzeke asmoz, Labayruko jardunbidean «Helduen euskara-eskolatzea» edo antzeko zerbait erabili izan dela jakin eraziz heldu zion gaiari Adolfo. Terminologiako desegokitasunak xehetu ondoren, beste desegokitasun larriago batekin etorri zitzaigun. Hobeki esan, desegokipen bikoitza dakusa euskarazko alfabetakuntzaren egitasmoan: «era bitako hutsunea daukagu: batetik, pertsona-subjektuaren desegokitasuna eta, bestetik, gizartearen beraren eskaintza». Euskal hiztuna bera euskal alfabetatu gisa jarduteko gai ez baldin bada batetik, gizartea bera ez da *euskal* gizartea eta hari egin diezaiokeen kultur eskaintza ez da behar adinakoa. Egia da aurrerapen batzuek urratu direla eskaintza horien arloan; ez aski, ordea, oraindik. Hori horrela, egokitasunaren baldintza eta oreka gizarteak euskal kulturazko eskaintzak egiten dituen neurrian beteko da. Bere planteamenduaren argibide, pilotari batek euskaraz alfabetatzeko eman zizkion arrazoiak azaldu zizkigun: honek noiz edo noiz euskal kazetarien galderei erantzuteko eziñtasunak izan bide zituen euskaraz jatzeko zioak.

Agurtzane Agurtzaneren iritzian alfabetatze-saioak eta euskalduntze-saioak ez dira beti behar bezala mugarriztatu. Bi terminoen arteko aldeak eta kidesunak ez zedarritzatzeak alfabetatzea euskalduntzearen mendeko bihurtu du, hasierako kanpainetan salbu. Gauzak horrela, euskalgintzaren bi arloko birplanteatu beharraren ustea mahaigaineratu zigun Agurtzanek. Beste alde batetik, egungo euskal alfabetagaiaren irudia arakatu zigun. Euskalduna, izan ere, gero eta deseuskaldunagoa da eskualderik zabal eta gehientsuenetan: bere ohizko hizkuntz gaitasunak urritu ahala narrastu egin zaizkio. Ez da gauza ahozko jarduna behar bezala taxutzeko. Euskaltegia datorrenean, beraz, alfabetatu baino lehen, edota alfabetatu ahala, erdizka euskaldundu ere egin beharra dagoela gaineratu zuen Agurtzanek. Egoera honen aurrean, pedagogi arazoak azaleratzen dira: «ikasmaterial berezien beharra gero eta nabarmenagoa da». Bilbon bizi den euskaldunak bere ama-hizkuntza hain zabartua eta ahuldua baldin badauka, lehendabizi mintzaira hori «bergogoratu» egin beharko du, geroko sendotze-lanak gorabehera.

Erramun Erroldak diona diola, euskaldungoaren gehiengoa alfabetatu gabe dagoela esanaz hasi zitzaigun Erramun. Eta luzagabe planteatu zuen galdera giltzarria: «Zergatik ez dira euskaldun horiek hurbiltzen helduen alfabetagintzara?». Erantzuna ezin liteke eskaintzaren mailan bertan kokatu Erramunentzat. Auziak erro sakonagoak bide ditu: «Euskadiko Autonomi Elkartearen hizkuntz politikak porrot egin du helduen euskalduntze-alfabetatze munduan». Eta hona galdera-erantzunen katean hurrengoa: «Eta zergatik egin du porrot? Lehenengo eta behin, euskararen etorkizuna eskolameen esku utzi izan delako. Instituzioetatik iritsi zaigun mezua, auzi honetan, txit gardena da: belaunaldi helduak galdutzat eman behar dira euskalgintzaren arlo honetan. Zokorapen-egoera honetatik ateratzeko, besteak beste, zera egin behar da berandu baino lehen: auzia aztertu eta lehentasunezko tratamendua eskaini arlo honi euskararen berreskurapen orokorraren baitan. Ezin da ahantzi orobat eskaintz mailan lan hau «titulu baten lorpena bideratu» izana, beronek dakartzan alde makur guztien zamapean.

Euskarazko alfabetakuntza eta euskal kulturaren zoria

- a. Zer-nolako harremanetan daude helduen alfabetatzea eta euskal kulturaren garapen-oinarriak?
- b. Zer aportatzen dio bereziki mugimendu honek euskal literaturgintzari?
- c. Euskal irakurleagoaren baitan ze pisu du alfabetatze-iturri honek?
- d. Liburugintza, aldizkarigintza eta «Egunkaria»: idatz-irakurbidezko kultur euskarriontzat irakurleen harrobi hau oparo ageri da ala euskarazko eskolaketa berri-indartuaren esku dago komunikabide horien etorkizuna?
- e. Euskal kulturaren bideetan barrena abiaraztea baldin bada alfabetatze-kanpainen helburua, bide honek nora darama alfabetagaia: herri-kulturaren gai-barrutira ala kulturabide zabalagoak eskaini behar lizkioke?

- Koldo* Alfabetatze-klaseak euskal gramatikaren bide lehor eta aspergarrien ardatzean erratu izana salatuz abiatu zen Koldo bigarren jardunaldi honetan. Deklinabide-
-taula eta NOR-NORIren bide arrotz eta traketsetan: gauzak erraztu ordez, zaildu egin izan zaizkio euskal alfabetagaiari. Hizkuntza bera irakurmen eta idazmenaren arlotan landu eta jorratu beharrean, metalengoiaren azalpen antzutan galdu izan gara irakasleok. Hori gutxi balitz, ikaslearen baitan sentimendu negatiboak sortarazten ditugu: guzti honekin, izan ere, analfabeto izatearen sentimena areagotu egiten bait diogu. Koldoren iritziz, jokabide honen oinarrian dagoena zera da: helburua eta estrategia nahastu izana. Helburua EGA lortzea baldin bada, hots, euskaldun osoa bihurtzea, garai bateko bi prozesuei orain hirugarren hau erantsi zaie. Baina Koldok honetaraz gero galdera hau egiten du: «Eta zer da EGA?». Erantzuna: «EGA ez da ezer». EGArean ibilbide hau estrategia hutsa besterik ez da: «hau» lortu behar denez, «hau» emango dugu, eta kitto. Ez da testu bat hartu eta hura lantzen, irakur-idazmenak garatuz. Ez, sinonimoen bila abiatuko gara, hizkuntzaren mamia eta muina alde batera utziz.
- Josu* Alfabetakuntza eta euskal kulturaren arteko elkarreragina azken finean kulturgingintzaren oinarrian dakusa Josuk. Ebidentzia den aitopren hau egin beharra dagoela uste du: alfabetatu gabeko herri batek sortzen duen kulturak, derrigorrez, kultura ahula izan beharko duela. Era berean, analfabetoari kulturgingintzan jardutea zaila egingo zaiola. Kultur giro ahula dagoen neurrian, alfabetakuntzak ez du bururik jasoko. Mugimendu honen aportazioari dagokionez, Josuk hor zehar erabili izan diren neurri standarrak aipatu zituen, komunikabideetan eta gutxieneko baldintzak betetzeko. Euskaldunon kopurua, bere erlatibotasun guztiarekin ere, garrantzizkoa da dinamika honen barne. Beste alde batetik, alfabetatze-kanpainen eredia eraberritzearen aldeko agertu zitzaigun: eskarien zai egon beharrean, eskaintza zuzen-zuzenean egin behar zaiela, kanpainok alfabetagaiarengana hurbilduz. Jarrera berri honek, noski, formula berrien aurkikuntza eskatuko liguke, orain artekoa ez gertatzeko.
- Andoni* Andoniren ustez ere alfabetakuntza euskal kulturaren ardatzean txertatu beharra dago. Ukaezina iturri hau erabat agortua ageri zaigula, eta ez dago horretarako zenbait ikasturtetako kopuruak ikusi besterik. Dena dela, egungo gizarte honetan, norbanakoaren alfabetakuntza ez da bide honetatik bakarrik bideratzen, denok dakigunez. Nolanahi ere, planteamendu hauetan bizio batzu idoro zituen Andonik. Hasteko, alfabetakuntza eta hizkuntza idatzia identifikatzea. Gaur egun, edozein hizkuntzatan delarik ere, norbanako hori alfabetatzen denean, trebetasun bakar soilaren gainera, mintzairaren erregistro guztietan iaiozten da zinezko gizartegintzan esku hartzeko. Bigarren bizio bat aipatzekotan, gidoian bertan formulaturik ageri zaiguna aipatu behar da: alfabetatzea ezin da herri-kultura soil hutsera murriztu, kultur barrutiaren eremu zabalak bere baitan besarkatu behar bait ditu. «Mundu osoko kultura, euskaraz». Orain arteko akats bat izan da gure artean hori, eta bada garaia kultura maiuskulaz hautemateko: kultura, hitzaren zentzurik zabalenean.

Adolfo Adolforen lehen hitzak izan ziren puntu hau oso egoki zetorkiola adierazteko. Derioko eta Labayru ikastegiko metodologi esperientziak agertzea zen bere helburua. Eskarmentu horren argitan, zera eduki bide dute aski argi: «hizkuntza bat irakastea hutsik arrazoi gehiegi bako zerbait dela». Egia omen da noski hizkuntz agiri guztietan hizkuntz edukiak eskatzen direla, baina prozedura honek bere mugak dituelakoan dago Adolfo. Bere hitzez adierazteko, ezin ahanntzi bide da honako hau: «hizkuntzaren sinesgarritasuna ez dago egituren ezagueran edo morfologia-sintaxi-lexikoaren ezaguera hutsean». Hizkuntza, izan, bitarteko zerbait da beti; jakintza, kultura edo dena delarena. Beren jardunbideetan ez bide dute euskal gizartearen ikuspegi oso beterik isladatu, baina bai alderdi garrantzitsu bat: euskal literatura, hain zuzen. Eta ez neurri txikian, ikusi ahal izango dugunez: «kurtsoen %50 euskal literaturaren tradizioari eskainirik egon da». Are gehiago: beren ikasleen satisfaziorik handienetako bat euskal literaturaren munduan murgildu izanean omen datza. Agorbideak aukeratu orde, hots, gramatikaren bide meharrak, testu bat ondo irakastea «gozatsua» da, eta horri ekin zioten hirurogeitamar aldera. Mikel Zarateren aholkuei jarraiki, alfabetatze-lanotan «gure mundutxo hau» irakatsi behar litzateke, eta «gure mundutxo hau» ez dela orain-hemengoak bakarrik, gure tradizio idatziaren bidez jaso dezakegun kultur ondarea ere badela gaineratu zuen Adolfo.

Agurtzane Agurtzane gogorarazi zigun euskal alfabetatzearen lehen urratsak euskal kulturaren susperbide bezala planteatu zirela. Orain, aldiz, beste bide berri batzuren beharrean somatzen du euskal alfabetatzea: kultura tradizionala ez ezik, kulturabide zabalagoak bildu beharko litzuzke ekintza honek. *Kultura* kontzeptuaren inguruko galderak eta zalantzak formulatu ondoren, mugimendu honek literaturgintzarekin dituen loturei buruz mintzatu zitzaigun. Agurtzanearen ustetan, ikaslea literaturzalea baldin bada, uztardura berez etorriko da. Irakurzaletasuna, ordea, gauza konplexuagoa denez, gizartearen baitan dauden irakur-joeren araberakotzat definitu zuen emaitza. Amaitzeko, alfabetakuntzaren kultur arloak bizitzaren esparru guztietara hedatu behar direla seinالاتu zigun Agurtzane.

Erramun Erramunen lehendabiziko epaia honako hau izan zen aurretik entzundako kultur kontzeptu batzu onartu gabe: «alfabetatzea helburutzat duten ikastaroei Euskal Herriko egoera eta ezaugarriei lotuta egon behar dute». Ikaslearen euskaratik abiatu behar da, eta gutxiagotasun-komplexu oro baztertu. Eta euskalgintza horretan txertatu behar dira herri-kanten lanketa, poemak errezitatzea eta helduok beren seme-alabei laguntzeko ahalbideak eskuratzea. Hori horrela, Erramunen beste iritzi bat hauxe da sail honetan: «alfabetatugabeak nolabait funtsezkoak dira hizkuntzaren iraupenerako». Hauen aportazioa ezinbestekoa iruditzen zaio gaur egun mamitzen ari den hizkuntz eredurako. Hain zuzen ere, hizkuntz harrobirik oparoena jaiotzez euskara dakitenen euskaldunongan bait dago hizkuntz eredu berri bat egiteko orduan. Erramun ez zetorren bat gidoian nolazpait esaten denarekin, literaturgintza eta komunikabide idatziei begira euskal sektoreen aportazioa zehazterakoan: bere ustez,

eskolumeen belaunaldi berriak ezinbestekoak badira ere, helduen eskuharmena orobat funtsezkoa izango da kulturbideon garapenerako. Bai irakurle gisa, bai hizkuntz eredu aberats baten ekoizle gisa. Guzti honen ildotik, alfabetatzea talde naturalekin lotzea proposatu zuen.

Euskal alfabetatzearen oinarri-egiturazko arazoak

- a. Alfabetatze-mugimendua herri-ekimenezko borondate soil bakarrean oinarritu da urte luzetan.
- b. Autonomi Estatutuekin Hegoaldeko Autonomi Elkartearen euskalgintza honentzat baldintza batzu aldatu dira. Alde batetik, nolabaiteko instituzionalizatze-prozesua eta, bestetik, giza indarren zatikapena eta koordinazio-arazoak lehendik zetorrenarekin. Nola ikusten duzue egungo egoera eta bihar-etziko alfabetatze-indarren uztaidura?
- c. Euskaltzaindiaren babesean antolatzen ziren kanpaina haien muga materialak izugarriak ziren, baina gerora urratu den bideari, besteak beste, bi alderdi makurrok agertu zaizkio:
 - Aipatu berri dugun zatikapena eta honi darion plangintza orokor bateratua burutzeko zailtasuna.
 - Hasieran alfabetatzeak bazuen nortasuna eta autonomia euskalduntze-lanarekiko. Orain ez al dago itota euskalduntze-prozesu zabal horren baitan?

Koldo Koldok Zarauzko esperientzia batekin ekin zion azken saiotxo honi. Bertako Udaletxean hizkuntz eskakizunen arduraduna zela esan zigun. Baserritar ehorzleari gertatua azaldu zigun, bidebatez berak baino hobeki hitz egiten duela zehaztu ondoren. Bada, gizon honi eskakizun horien barruan, lehen perfila zegokion eta, gutxi-asko, laugarren urratseko hizkuntz edukiak menderatzea suposatzen du maila horrek. Jakina, idazteko eskatu zitzaion txostentxo eta guzti horren aurrean gizon honi aurpegira analfabetoarena botatzen diogu. Adibide horren ondotik, Koldok instituzionalizazioak berarekin ekarri dituen zenbait ondorio jorratu zituen. Besteak beste, guzti honetarako sortu diren HAEE-IVAP, IRALE, HABE eta Hizkuntz Idazkaritza erakundeak ez datoz bat zenbait irizpidetan. Are gehiago: hauek zenbait alorretan aurkaesantetan erortzen dira. Eta hona zer-nolako galderak egiten zituen titulu-kontuak direla eta: «EGAk gaitasuna ziurtatzen baldin badu, IGAK ere gaitasuna suposatu behar du. Orduan zer da EGA eta IGA? Biek gaitasuna suposatzen baldin badute, eta biak ezberdinak?». Amaitzeko, prozesu honetan gauzak azkarregi egin direla aitortu ondoren, eta horren lekuko direla hainbat eta hainbat hankasartze, euskalduna beste edozein hiztun baino okerrago dagoela adierazi zuen. Alegia, hizkuntz eskakizunen logika guztia euskaldungai begira egituratu da, eta ez euskaldun hiztunari begira. Azken batean, euskaldunari beste hiztun-ereduei baino gehiago eskatzen zaio, kontuan hartua izan ez delako.

Andoni Euskalduntze-alfabetatzearen instituzionalizatze-prozesuak egin duen ibilaldia egin ondoren, Andoniren aburuz bada garaia azterketa sakon bat egiteko.

«Besteak beste, baditugulako zenbait datu objektibo azterketa ondo egin ahal izateko». Jadanik badira hamar urte horri hasiera eman zitzaioela, eta burutu duen ibilbideak zer-nolako ondorioak eman dizkigun jakin beharko genuke. Horren ondorioz gero hartu behar diren erabakiak hartzeko eta egin behar diren berplanteaketak egiteko. «Ni neu benetan, egoera honetan, gertatutakoa gertatuz, eta eskuartean ditugun datuak ikusita, bene-benetan ni neu kezkatu nago arlo guztietan». Honen irudiz oraindik ez da gaituzteko gauza bat: aho batez onartuko dugu administrazioaren beharra, eta ez dugu herri-ekimenaren zeregina arbuatuko, baina denboraldi luze honetan oraindik ez dakigu zeini zer toki eta egiteko dagokion. Ez dugu oinarrizko adostasunik erdietsi. Eta kontua ez omen da subentzio eta antzeko txikikeriatan eztabaida biztea: baizik eta bi ekimen-iturri ezberdinon nondik-norakoak zehaztea, instituzionalizatzen denean ez delako horietako arlo bakar bat soilik egituratzen, biak barne daudenez gero. Ez dugu kontsentsuatu auzi hori, eta hori biziki larria da.

Adolfo Baliabideei dagokienez, baliabideok ez bide dugu jakin behar bezala erabiltzen, Adolfoaren esanei bagagozkie. Bestalde, neurtuak izan dira, eta baita «miserableak» ere. «Beste modu batzuren bitartez aurrera atera da ekintza hau». Dena dela, Adolfoaren ustez, baliabide guztien iturri bakarra, agian, ez luke administrazioak izan beharko. Kontua da lan hau aurrera eramatea «ez dela errentablea» eta gaituzteko zaigula langintza honetan jardutea. Beste alde batetik, administrazioa berandu konturatu da euskal hiztunen prozesua bestelakoa dela, eta ez –Adolfoaren ustez– datuak falta izan dituelako. «Eta 1989 arte, hau da, sorreratik zortzi urte igaro arte, ez da homologatu izan, beti ikasle-kopuruaren zorioneko atxakiak ipinirik». Alfabetatzegintzaren tratamendu berezi hau dela eta, urteotako eskarmentuok argi erakusten digute administrazioak ez duela «euskal hiztunen arazoaren erreflexiorik egin», orohar hartuta. Auzi honetan aho beteko adostasuna agertu zela esan gure aldetik, xehetasunak xehetasun.

Erramun Auzi hau argituko bada, Erramunek hasieratik beretik harira joan beharraren premia azpimarratu zigun. Horretarako, Jaurlearitza ordezkaritza batzuren hitzak gogorarazi zitzaizkigun, hain zuzen ere, 1980an Valentzian egin ziren jardunaldi batzutatik hartuak. Txosten horretan, mamiz, zera esaten zen: instituzionalizatzea Eusko Gobernuaren eskutik etorriko da, baina horrek ez du herri-ekimenaren kemenik itoko, zeren herri-indarrok gabe prozesu soziolinguistiko oro ez da pentsagarria; izan ere, euskara ez da dekretu bidez salbatuko eta gizarte-mugimenduen beharra noraezekoa da nahiz eta nahikoa izan ez. Orduko mezu hau entzun ondoren, Erramunen balorapena hitzotan bil daiteke: «administrazioak badu zer aldatu, azken hamar urte hauetan gertatu dena ikusita». Kasurik hurbilen modura, «Egunkaria»rena aipatu zigun, egon diren bi egitasmoen arteko desoreka neurrigabeak nabarmenduz. Errekurtsoak mugatuak baldin badira, eta horren ondorioz, arrazionalizatu beharra baldin badago, «nik uste dut sailean gabiltzanoi esatea, ba ez dut esango iraingarri, baina bai mingarria dela, ezta?». AEKk azken urteotan jaso duen dirulaguntza ikusita, norbaitek gerrikorik estutzekotan, dirua alferrik gastatzen dutenek egin

beharko lukete. Erramunen ustez Eusko Jaurlaritzaren 80-81eko planketa minimoak gero HABE legearen garapenean agertutako helburuekin alderatzen baditugu, «kristolako atzeraka izan da» berreuskalduntze-prozesurako. Han, planketa minimoan alegia, «berreuskalduntzea jartzen zen helburutzat» eta HABE legean, ordea, «elebitasuna». Amaitzeko, baldintza berrien premia nabarmen erazi zigun Erramunek, «baldintza berri horiek denon adostasunez baina inor baztertu gabe burutu behar direla» gaineratuz. Hala ere, ezkor agertu zitzaigun AEKko ordezkaria orain arteko urratsak nondik-nora eraman diren ikusita.

* * *

Durangoko esanak, nola edo hala jasota, horiek dira, dena hor ez badago ere. Alfabetatzearen kontu hau gurean bestetan ez bezalako ezaugarripen dagoela argi geratu da saio guztietan barrena. Bestetan, Estatu-hizkuntzak ziren neurrian, eskolaketaren bidezko alfabetakuntza burutu zelako bere garaian, hizkuntza minorizatueta ez bezala. Eta kontua ez da atzo goizekoa: Axular bera dugu horren lekuko. Latinaren altzotik zetozen hizkuntza ofizialen kode landua zeregin standarretarako oratzen ari zelarik, mintzaira zokoratuok ahozko adierazpidera kondnaturik zeuden: «Zeren are bere herrikoen artean ere, ezpaitakite batzuek, nola eskriba, eta ez nola irakur».

Auzo-erdaretan alfabetakuntzaren uhinak gizarte-sektore gehientsuenetara iristen ari zen garaian, Lizardiren şamina ageri zaigu mende honen hasieran. Eskolabidezko alfabetakuntza zuen gogoan Lizardik noski. Baina bidea da gutxienekoa. Gizarte industrialdu hiritartuan alfabetakuntza ezinbesteko oinarri-baldintza bihurtzen ari zen unean ohartu ziren gerra aurreko euskaltzaleak euskaldungoari zetorkion patu beltza. Oharmen zorrotzez ohartu bait ziren Aitzol, Altube, Mokoroa, Olano, Landeta eta bestek alfabetakuntza ez zegoela hizkuntza zapalduon esku, eta luzarogabe ordezkatuak izango zirela, eskola euskaldungoaren zerbitzuan ipintzen ez bazen.

«Preciso es -dio Lizardik-, en fin, que dirigamos nuestros más perseverantes esfuerzos a conseguir que en un futuro más o menos próximo las generaciones jóvenes encuentren natural y exento de toda violencia el hecho de leer corrientemente y en euskera correcto, y de escribirlo igualmente al comunicarse con sus padres y amigos euskaldunes».

Durangoko mahai-inguru horretan sarritan aipatu zen auzi bat gogorarazten digu Mitxelenak oraintsuago. Eskolaketaren bideak izan behar duen bide bakar eta soila ala heldu-adinekoen alfabetatzea ere derrigorrezkoa den hizkuntz transmisibideen sare zabal nahasian. Eskolaketan euskarak izan beharko lukeen lekua aipatu ondoren, Mitxelenak zera eranstean du Euskaltzaindiaren Liburu Zurian:

«No me parece menos importante lo que se está haciendo con los adultos en campañas de alfabetización, etc. Hoy, por primera vez entre nosotros, hay una minoría numerosa de vascos que no son analfabetos en su lengua y están allanando el camino de los que aspiran a iniciarse, para que no les vaya a ser tan fatigoso como nos ha sido a los que somos de otra edad».